

GORGONIO RENTERIA
(1868-1940)

Egilea:

PAKO SUDUPE

Seguru asko ezezagunak gertatuko zaizkizu, irakurle, izen-abizenok. Espainiako 1936ko gerraren aurretik oso gizon famatua izan zen; Hego Euskal Herriko abertzaleen artean oro har; eta bereziki, Bilbon bertan nahiz Bizkaiko itsas ondoko eta ez hain ondoko herrietako euskaldunen artean.



Gorgonio Renteria (1868-1940)

Famatua gauza bategatik baino gehiagotatik. Sabino Arana hil eta laster hasi zen hitzaldi nazionalistak egiten: oraintxe Gernikan, hurrengo Zornotzan, Bermeon edota Mungian, bere jaioterri Elantxoben nahiz hiriburuan, Bilbon, Euskalduna pilotalekuan. Hitzaldi hauen berri ematen zuten kronikarien arabera, Jaungoikoa eta Lege Zaharra, JELenganako maitasunean jendea sutzen eta gartzen aparta zen. Kontu egin sei mila lagun eta, biltzen zirela direlako ekitaldi abertzaleotan komunikabideen eragina murrizta zenean eta prentsara mugatua. Hizlaritzari utzi gabe, hasi 1916an eta 1923ko irailean Primo de Rivera jeneralak diktadura ezarri arte, erantzukizun handiko karguak izan zituen alderdi jeltzalearen barruan —Comunión Nacionalista Vasca— eta bai halaber, Administrazio Publikoan ere. BBBko buru (1916-18), EBBko lehendakari (1918-1921), Elantxobeko alkate (1916-1921), Bizkaiko Diputazioko ahaldun Gernikako hauteskunde barrutitik (1919-1923).

Lan politikoan ez ezik, idazgintzan ere aritu zen. Lehenbizi olerkigintzari ekin zion, Filipinetan bizi zelarik, eta hortxe, hogeita hamar urteren bueltan zela —Azkue handiak *Euskalzale* aldizkarian argitara zizkion—. Euskal erromantizismo berantiarren erakusgarri dira. Batzuk zirrargarriak. Hitz lauz idazteari, berriz, heldutasunera iritsirik lotu zitzaion, hirurogei urtetik gorako zelarik. *Euzkadi* aldizkari jeltzalean hogeita bost bat artikulu argitara zituen, eta *Ekin* jaungoikozaleen aldizkarian hamabost bat. Produkzio urria baina jakingarria Espainiako II. Errepublikaren garaian jeltzale sutsuenen pentsaera eta sentieren berri izateko, bestelako balioak beste. Kontuan izanik Sabino Arana, Azkue, Ebaristo Bustintza *Kirikiño*, eta besteak beste, Txomin Agirrerren garaikidea zela (1868-1940), euskarazko idazgintza hasiberritan zen garaikoa —hasiberritasun hori beti erlatibo izanik ere—, ez da bestera begiratzeko idazgintza inola ere.

Zergatik ez da ezagunagoa gaur egun? Arrazoiak askotarikoak dira. Batetik, egindako hitzaldi arrakastatsuen oihartzunaren iraupena urria izan ohi da. Bestetik, nork ezagutzen ditu, nork eskura ditzake aise egungo egunean *Euzkadi* eta

Ekin aldizkariak?¹ Arrazoi pisuzkoagoa oraindik: Norentzat da gaur egun erakargarri JEL ikurritzaren mamia? Bestela esan, gutako nor bultzatzen du aberriagatik nekeak eta hildurak onartzera, aberri ama norberaren bizia baino gehiago maitatuz Jainkoaren



Gorgonio Renteriaren jaiotetxearen teilatua eta goiko solairua neskatoaren eskuin aldean, Elantxobeko herrian

¹ Gorgonio Renteriak hala ere izan du beste batzuek izan ez duten zortea, haren idatziak eta hari buruzkoak buru argiz eta esku maitekorrez bildu dituen alaba izatearena, haren oroimena ahazturak suntsi ez dezan. Gorgonioren alaba Jule Renteriari, biziki eskertzen diot eman didan laguntza lantxo hau burutzeko.



Elantxobeko herria, Ogoño mendiaren magalean; goitik ikusita



nahia egiten dugulako sinesmen sendoak? Urrun geratu zaigu gerraurreko fede probidentzialista-esentzialista eragile hura.

Bada, sinesmen sendo horrexek eraman zuten *Erreteriar Gorgoni* bere bizia euskal aberriaren aldeko lanarekin lotzera, nahastera eta urtzera. Horrela esanda erromantikoegia dirudi, baina itxura guztien arabera erromantikotik asko izan zuten haren biziak eta etengabeko ekinak. Miresgarri gertatzen diren puntu dezente du Gorgonio Renteriak ikuspegi euskaltzale-abertzaletik;

esaterako, euskararen defentsa erabatekoa, are alderdiaren beraren jokaera kritikatzuz, edota euskal gogo bereziaren aldarrikapena eta bereiz mantentzearen aldeko jarrera sendoa, nahiz hau mundu-ikuskeraren erlijiosoak ernea izan; eta bai halaber, giza ikuspegi soiletik begiraturik ere, sinetsitakoaren alde erakutsitako lehia eta koherentzia eskerga. Idazle ikuspegitik ere, badu alde ohargarririk.

4 Sabino Arana, Azkue, Unamuno, Txomin Agirre-eta jaio zireneko hamarkadan sortu zen, hain zuzen 1868an, Elantxobeko herri politean. Aitak erakutsi zion txaluparako bidea, eta ikasketak bizibidea itsasotik ateratzeko eskizian egin zituen; lehenbizi Elantxoben, ondoren Bermeon nabigazio eskolan, eta bizitzarako benetako eskarmentua Torrevieja-tik (Alacant) Kubara joan-etorrian ibiltzen zen belaontzi batean egin zuen, gatza eman hara eta azukrea ekarri handik, ibili zela. Ba omen zuten kontramaisu galiziar bat, Atlantikoko ekaitzaldi gogorren artean, gozotasun handirik gabe masta nagusira igoarazten zituena. Bere semeetako batek esatera, kapitain-titulua Ferrolen atera zuen 21 urte zituela, eta itsasontziaren agintea 23 urterekin, Filipinetan. Agiri ofizial batek egiaztatzen duenez, 32 urte zituela, 1900. urtean hain justu, eskuratu zuen Ferrolen Merkataritza Ontzietako lehen mailako kapitain-titulua.




Kepa Enbeita Urretxindorra-rekin batean. Lagun handiak, eta gogaideak izan ziren



Gorgonio Renteriaren emaztea eta bere gurasoak



Elantxobeko erretorea, Don Juan Calle, aita Gorgonio Renteriak bere alaba Jule Renteriari oparitutako motortxoa bedeinkatzen




FILIPINETAN

6

Filipinetan, Don Manuel Intxausti ontzi-jabearen ontzietan egin zuen lan, eta handik aberriraturik, 1910etik aurrera Compañía Marítima de Bilbao zeritzan hiru merkataritza-ontziko enpresan, ikuskatzaile gisa. 1937an, Bilbo galduz gero Baionara jo zuen, eta han gelatxo ziztrinen batean bizi omen zen. Ordurako gainera minbiziak jota egon behar zuen. Manuel Intxausti jaunak gelatxo horretan ikusi zuenean adierazi omen zion, besteak beste, harengatik egin zuela dirua eta gelaxka hura baino gehiago merezi zuela. Askoz duinagoko beste etxe bat eskaini zion. Berau dago esaten nagusiarentzat langile ona izan zela. Nolakoa zen marinelekin? Nolakoa ikuskatzaile moduan?



Filipinetan lagun bategaz. Hogeit bat urte eman zituen bertan



Ikuskatzaile moduan zer-nolakoa zen jakiteko ez dut inolako iturririk. Marinelekin nolakoa zen jakiteko argi-izpitxoaren ematen digun istorio edo kondaira bat badago *Euzkadi* aldizkarian argitaratua. Kontakizun honek gainera zenbait argitasun ematen dizkigu Filipinetan eraman zuen bizimoduaz eta zituen pentsaera nahiz sentieraz. Gogaide zuen Ramón Bikuñak kontakizun-liburu bat idatzi zuen Euzko Ikastola Batza-rako 1930 inguruan, eta liburura bildutako kondaira bat Gorgonio Renteriak kontatutakotik harildu zuen.



Gatozen gertaeretan oinarrituriko kontakizunera. Filipinetan uharterik uharte salgai garraioan eta bidaiarien eraman-ekarrian aritzen zen itsasontzia, Gorgonio Renteriaren agindupeko ontziak ibilbidearen burua jo zuen, Manila hiriburua hain zuzen, eta zamarekin batean bidaiariak jaso zituen, hauen artean bi kaputxino nafar, Aita Noain eta Aita Zubieta. Lehendik ere kaputxinoak baziren han, eta gure kapitainak harreman estuak zituen euskaldun buruñurdunekin. Aipatu bi fraideak hango eskualde batera zihoazen misiolari moduan Jesusen Berri Ona zabaltzera. Gorgonio oso poztu zen bere aberrikideekin hitz egiteko aukera sumatu zuelako. Harrera beroa egin zien, ontziko gelarik onenak bereizi eta nazionalismoaz jarduteari ekin zioten. Aita Ibero aipatzen zien kapitainak, eta kaputxino nafarrek gaitzesten zuten honen hautu politikoa, nafarren artean zatiketa eta eztabaida eragin zuelakoan. Bitartean ontziko atzeritarrak mira eginik, hizkuntza ezezagunean entzuten zituztelako, eta eskifaiako marinel euskaldunak zurturik, euren kapitain arduenik lehor eta larderiatsu agertzen zena ontzi-bizkarra zapaldu orduko, hain amultsu eta abegikor sumatzean.

Alfer-alferrik ahalegintzen zen jeltzalea etnia edo arrazaren batasuna eta hizkuntzarena aipatzen —euskaraz mintzo ziren—. Dirlako aita kaputxinoengana sentitzen zuen anaitasunak eragozten zion eztabaidaren harian erantzun zakarretara jotzea, eta bestetara jotzen zuen, inguru haien esploratzaile eta ebanjelizatzaile, nahiz agintari izandako euskal arrazako izen andana aipatzera, fraideak hunkitu nahian. Gauza hauek kontatzerakoan fededunaren su beroa eransten zien hitzei Gorgonio Renteriak, eta honen aurrean miretsirik gelditu ziren bi aitak. Utzi zituen beren helmugan, eta berriro itzultzean han ingurukoek aditzera eman zioten sukar gaiztoek jota gaixorik zirela fraideak misioa ezarri zuteneko baso inguruetan. Birritan pentsatu gabe, hartu zuen zaldia eta gidari indigena bat, eta aberrikide erlijiosoak zeuden etxolara iritsi zen. Bietatik euskaltasunari esker gutxien egiten zionak non esaten dion: Jainkoari eta Sabini esker zeudela hobeto. Gorgoniok pentsatu zuen ziri-esana zela, ironiaz ziotsola; baina Aita Noainek jaiki, eta eskuak eskuetan harturik zin egin zion euskal anaitasunagatik ez izatera hila zatekeela; euskal anaitasunagatik eta hauen bihotzetan fede hura ezarri zuen Sabinengatik izan ez balitz

sukarrek gain hartuko ziotela. Sabino Aranak gaitz fisikoak eta izpiritualak sendatu zituen nonbait.

Kontakizun honek *Euzkadi* aldizkarian argitaraturik izan zezakeen Alderdiaren aldeko propaganda-balioa alde batera utzirik, argi adierazten digu zein bereturik eta gorputz-arima eginik zuen Gorgoniok, Sabino Aranak aldarrikaturiko dotrina. Horretaz gain, ohargarri da mendeko marinela euskaldunak zituela. Gorgonio Renteria kapitainak nagusia euzkotarra zuen, ontzijabea, eta eskifaia ere euzkotarra. Ez da zaila irudikatzen gutxi gorabehera nolakoa izango zen kapitaina bere lanean: zuzena salgai garraioan, zorrotza lana eragiten, eta haren eskupeko ontziotan uste izatekoa da marinelen lanuzteek eta, ez zutela leku handirik izango, Ramon Sotaren ontzietan izaten ez zuten bezala². Nagusia euzkotarra eta jeltzalea bazen, zituen ondasunak bereak baino gehiago euzkotar


² Ikus, Iñigo Aranbarri-Koldo Izagirre: *J.B. Bilbao «Batxi» Hau mundu arrano hau*, Susa, 1997, Zarautz, 56-57 orr. Halaber, Ludger Mees: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Sabino Arana Elkargoa, Bilbo, 1992, 174-185 orr.

guztionak zirela ulertu behar zuen euzkotar langileak; eta jakina, oporrik egitea ez zegokion; aberriari huts egitea zitekeen hori, Gorgonio Renteriak miresten zuen Engrazio Aranzadi *Kizkitza*-k adierazten zuen moduan.

Filipinetako uharterik uharte itsasontzi-burutzan hogeit bat urte eman zituen Gorgoniok, eta asko ikustea eta bizitzea suertatu zitzaion. Esango nuke abertzaletze-kontuan ere zerikusi zuzena izan zuela Filipinetan bizi izandakoak. Rizal poeta eta abertzale filipinarraren olerki aberkoiek erabat hunkitzen zuten³. Biziki miresten zuen filipinarrek euren aberriaren jabe egiteko zerabilten borroka. Ez dakit ikusterik izan zuen nola, 1896an, Polavieja jeneral espainolaren aginduz —kapitain jeneral egin zuten 1910ean jeneral hau—, Rizal poeta eta abertzale filipinarra hilarazi zuten; alabaina, bere lekukotasunez badakigu zenbait erailketa ikusi zituela:

³ Bere alaba Julek buruz kantatu zizkidan, aitak kantatuz erakutsi zizkionak: Adiós patria adorada/región del sol querida/perla del mar de Oriente/nuestro perdido Edén/a darte voy alegre/la triste mustia vida/si más brillante fuera/ más fresca más florida/también por ti la diera/la diera por tu bien. RIZAL. Beste bat: Si

Gazte nitzala Manilako Bagumbayan, eritxon zelai ederrian, ezautu neban español agintarien dollorkeria, ainbat ango seme erruge eraildu ebezenian Jaungoikuak aren biotzetan esarri eban aberriaganako maitasun Deuna errutzat artunda. Eta orain ezpaña agintzapian erailgarri ziranak, ziñopak legez goralduta odol ederra erijon eben tokian bertan bizi dira arriduri oroimengarrian eta pilipiñuen biotzetan.⁴



sobre mi tumba vieras/entre la espesa hierba/sencilla y humilde flor/acercála a tus labios/y besa el alma mía/y siente yo en mi frente/bajo la tumba fría/de tu ternura el soplo/de tu hálito el calor. RIZAL.

⁴ Gorgonio Renteria, *Perularra*: «Euskal-erriko izparrak» in *Ekin* 1933-5-6.

Filipinetan jarraituz, agintari espainiarrek filipinar abertzaleen matxinadak itotzea lortu bazuten ere, ezin izan zuten beste horrenbeste egin estatubatuarren aurka. Espainia eta Estatu Batuak Filipinetan gerran ziren bitartean, Renteria kapitainak jarraitu zuen salgai garraioan, eta ingelesek lan bat eskatu zioten, Manilako Hong-Kong bankuko diru gordailuak babestekoa; horretarako itsasontzi ingelesen geriza eskainiz. Halatan bada, Cavite-n espainolek jasan zuten hondamendia ingelesen babespeko itsasontzitik ikusi zuen. Biharamunean borrokaren ostean bizirik geraturiko ofizial espainolak jasotzera joan zen; hauek beldur zirenean filipinar abertzaleek mendean zituzten hondartzetara iritsiz gero bertan hilko zituzten. Aberri-maitasun kontrajarriak gorabehera, ez zion, nonbait, barruak agintzen —kontzientzia erlijiosoak— espainol ofizialak babesik gabe uztea. Galtzaileen alde egiteko ez du ematen bestelako interes materialik izan zezakeenik.

Geroago Estatu Batuetako presidente izatera iritsiko zen William Howard Taft-ek, Filipinetako lehen gobernadore estatubatuarra, jakinik zer ondo ezagutzen zituen Gorgonio Renteriak hango uhartediko itsasoak, hidrografia-planoa burutuko zuen ontziaren burutza eskaini zion. Emandako laguntzaren ordainetan, hiritartasun estatubatuarra eskaini zion, baina Gorgoniok ez zuen onartu. Ez zuen, antza, Estatu Batuen botereak liluratu.

Nagusi aldaketaren ondotik, kapitain espainolek jarraitu zuten Espainiako Koroari leial, ez horratik, Elantxobeko kapitainak⁵. Honek bere eskuko ontzian, bere aberri txiki-maitearengana baino mendekotasunik onartzen ez zuela, ikurrina mastan haizearen eraginpean, haize alde edo haize kontra, urratzen jarraitu zuen Sortaldeko perlaren urak, sarri-askotan gogoia hain mira eginiko aberrian iltzaturik zuela.

⁵ Filipinetako gobernuaren izenean, eta 1905eko apirilaren 9an luzaturiko agiri batean honela dio: «This is to certify that the name of Gorgonio Renteria does not appear in the register in this office containing the names of those persons who declared a desire to retain their allegiance to the Crown of Spain».

ABERRIAN

Mira eginiko aberrian, filipinar-abertzaleak beren aberrian bezala, abiarazia zuen Sabino Aranak aberria askatzearen aldeko mugimendua eta eratua alderdia. Elantxoben bazuen haste-hastetik jarraitzale leial talde bat. Hauetan, beharbada, ospetsuenetakoa Galo Ibiñagabeitia, Andima Ibiñagabeitia euskal idazlearen aita —Aita Ibero kaputxinoaren liburuxka nazionalista Elantxobeko eskolan haurrei irakasteagatik Gernikan espetxeratu,




Gorgonio Renteria, Zestoako bainuetxean

eta han harrapaturiko gaitza zela medio 37 urterekin hil zena—. Gorgonio Renteriak kontatzen du nola 1895ean ika-mikak izan zituzten Elantxobeko alkate jeltzalearekin. Artean ez zen hauteskundeetara aurkezten Euzko Alderdi Jeltzalea, eta Gernikako barrutitik Allende zeritzana eta Tomás Gandarias, Gorgonioren hitzetan «euzkotar endekatua» aurkeztu ziren. Alderdiak delako Allenderi botoa ematea erabaki zuen, eta Elantxobeko alkate Ugalde´tar Alesanderrek berriz, Gandarias, honek kaia berritzen lagunduko zuelakoan. Alkatearen erabaki honen aurka gogor altxatu ziren Galo eta honen lagun hurkoa —Gorgonio bera ez ote zen, delako lagun min hau?—. Garai hartan, Endaya´tar Manuren kafeetxean biltzen ziren abertzaleak Bilbon, eta Elantxobeko alkateak haiengana jo zuenean abertzaleek, Sabin buru zela, gogor hartu zuten alkate jauna, eta hau betiko haserretu zitzaien. Alabaina Sabin espetxean zela jakin zuenean bisitan joan zitzaion, eta abertzale biak adiskidetu ziren⁶.

⁶ Ikus, Gorgonio Renteria *Perularra*: «Abertzale biotzak» in *Euzkadi* 1935-12-25.

12

Bilbora joandako Galo Ibiñagabeitiaren lagun mina, Gorgonio bazen edo ez bazen, kontua da Bilbon bezain azkar ernatu zela abertzaletasuna Elantxoben, eta itsas herritxo txanbelin honek gizon dezente eman zizkiola nazionalismoari hitzaldi nahiz abesti aberkoi bidez, JEL hazia inguruko herrietan ereingo zutenak. Horien artean Galorekin batean saiatuenetakoa Gorgonio Renteria. Hau Galo Ibiñagabeitia eta Kepa Enbeita *Urretxindorra* eta gehiagorekin, mendearen hasiera ingurutik hasi zen hitzaldiak ematen. Horretaraz gero, aberrian egiten zituen egonaldiak ez zituen alferrik galtzen. Agirien bidez egiaztatu ahal izan dudanez, lehena edo lehenengoetakoa Mungian eman zuten 1904an; azkena, berriz, 1923an, Bilboko Euskalduna pilotalekuan.



Direlako hitzaldiotan zer-nolako gauzak esaten zituen geroago azalduko dugu. Bizi-urratsak eta burututako lanak kontatzera mugatuko naiz atal honetan. Gorago ere esan dugu 1910ean kokatu zela behin betiko aberrian, eta handik aurrera merkataritza-ontzien enpresa bateko ikuskatzaile lanean aritu zela. Filipinetatik etorri eta luze gabe kargu publikoak hartu zituen bere gain. 1916an, Elantxobeko alkate izendatu zuten. Bera eragile nagusi zela hiru gauza nabarmen burutu ziren: hilerri berria atariko idazkun berriarekin; batzokia, eta kai berria 1919tik aurrera Bizkaiko Diputazioan Gernikako barrutitik ahalduz izateak eman zion aukeraz baliatuz. Hilerriaren atarian dagoen idazkunak honela dio: «Otoi bat eta gero arte». Hala esan eta egin ohi zuten hurbilekoren bat hildakoan. Batzoki gutxi zeuden 1919an, Elantxobekoa bezala, etxe osoa hartzen zutenak goienik barren. Ez dago esan beharrik kai egokia izateak duen garrantzia nonahi sor litezkeen arriskuak gutxitze aldera.



Gorgonio Renteria alkate zela egin zen hilerrri berria Elantxobeko herrian, 1916an. Sarrerako portalearen ateburuan Gorgoniok berak asmatutako idazkuna dago: *Otoi bat eta gero arte*. Geroko bizitzan Gorgonio Renteriak zuen fede sendoaren erakusgarri bikaina

Urte berean izendatu zuten, halaber, EAJko Bizkai Buru Batzarreko buru. Alabak dioenez, alderdian kargu garrantzizkoak izateak sosik sortzen ez zuen garaian. 1918an, Euzkadi Buru Batzarreko buru, eta 1919an, Gernikako barrutitik Bizkaiko Diputazioko ahaldun 1923ra arte. 1917ko maiatzean euskal diputatu eta agintari nazionalistak Bartzelonara joan ziren hango Lliga regionalista-ko Cambó-k gonbidaturik; Gorgonio Renteria ere joan zen BBBko ordezkari moduan. Hitzalditxo bat ere egin zuen euskaraz. Alderdian nahiz Diputazioan burututako lanez iturri handirik ez


dugunez, eta lekurik ere ez lantxo honetan; laburzurean esan, Comución Nacionalista Vasca zena bitan zatitu zenean 1921ean, Gorgonio Renteriak Comución-en jarraitu zuela. 1930ean bigarren zatiketa gertatu zenean (ANV/PNV) jarraitu zuen bezala. Bigarren zatiketa honen buruan, alderdiko prentsaren kontrolari zegokiola, ika-mika izan zuten alderdian geratu zirenen eta alde egin zutenen artean, eta hor EAJren alde egin zuen Gorgoniok. Diputazioari dagokionez, nazionalistek euskal burgesiaren, euskararen, nekazarien, eta arrantzaleen alde egindako

lanaren ingurunean, Gorgonio Renteria, bereziki marinelen alde eta euskararen alde egindakoan nabarmendu zen. Ondarrutik Zierbenara bitarteko itsasoko langileek omenaldia egin zioten, eskaini zien laguntzaren alderako.

Espainiako II. Errepublikaren garaian idatzi zuen hitz lauz idatzi eta argitaratutako guztia. Gaztetan, Filipinetan ekindako olerki eta bertsozaintzari ere jarraitu zitzaion.

Deun Mikel Laguntza izeneko anaiartean parte hartu zuen 1932tik aurrera, Euzko Alderdi Jeltzaleak euskal sendi behartsuei gorputzeko eta arimako laguntza eskaintzeko sorturikoan.

1936ko martxoaren batean argitara olerkian jadanik, hots, ezkerreko Frente Popular zeritzan hauteskunde-koalizioak hauteskundeak irabazi, eta eskuindar galtzaileek estatu-kolpearen aldeko adierazpenak egiten hasi eta berehala «aitorren semei» dei egin zien erresistentziara, aberriaren eraileen aurrean aberri amaren bizia, eskubideak eta zoriona aldeztara, ikurrinaren gerizpean eta euskal agintarien mendean. Esan liteke sumatu ez ezik uste osoa ere bazuela gerra zetorrelakoarena.



Gorgonio Renteriarene bost seme egin zuten gerra gudariekin. Bilbo erortzear zela, 1937ko udaberrian, gorago esan bezala, Baionara egin zuen ihes emaztearekin, seme-alaba gazteenak Ingalaterrara bidalirik. Baionan, Isaak Lopez Mendizabal eta alderdiko beste batzuekin batean, aberritik ihes egindakoei laguntzen jardun zuen. Ez zuen hainbeste irrikatu eta hainbeste maitaturiko aberriaren askatasunik ikusteko zoririk izan. Baionan eman zuen azken hatsa, 1940ko urtarrilean, alde batetik gaixotasunak —minbiziak—, eta uste izatekoa denez, gerra galdu izanagatik gogoaren abaildurak gain harturik. Bere jaioterri maiteko hilerri berriaren atarian «Otoi bat eta gero arte» esapidea jarri zuenak izan zuen abagunerik, izan zuenez, bere fedea sutan probatzeko. Zuzen jokatu izanaren kontzientziak lagunduko ahal zion azken urte garratzak kristauki eramaten!

POLITIKAGINTZAN


Egin zituen hitzaldietan zer-nolako gauzak adierazten zituen? Orainago esan bezala, gehienbat Bizkaiko herrietan jardun zuen: Gernika, Mungia, Zornotza, Bermeo eta abarretan; hiriburuan ere bai, Bilboko Euskalduna pilotalekuan. Bizkaian ez ezik, Gipuzkoan ere bai, hala nola Azpeitian, Tolosan, eta Donostian, batzokien irekiera, alderdiaren batzarra edota hauteskundeak zirela tarteko.



15



Mungian, Bermeon, Gernikan, Zornotzan eta Bilbon mitin askotan hartu zuen parte Gorgoniok, JELtzaletasuna hedatzen lan eskerga eginez. Espainiako Gobernuko iturrien arabera, sei mila lagun-eta elkartzen ziren direlako mitinotan



Mamiari dagokionez, eta *Euzkadi* aldizkarian datozen kronikak nahiz Gorgoniok berak aldizkari berean idatzitako artikuluen argitan, esan liteke honako konstanteak erabili zituela: euskal nazioaren probidentzialtasuna, esentzialismoa, eta historizismoa⁷. Gorgonioren ikuskeran, Jainkoak sortua da euskal nazioa, ez euskaldun edo euzkotarren nahiak. Euskal Herria nazioa da etnia edo arraza, hizkuntza, lurraldea, eta erakunde berekiak izan dituelako betidanik. Betidaniko esentzia jator horri eutsi behar lioke gainera, utzi alde batera arrozkeriak, zibilizazio atzerritarren ohiturak eta betidaniko euskal esentzia zindoak atxiki bere horretan. Historizismoari dagokionez,

⁷ Ikus, Jose Luis de la Granja: *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, Siglo Veintiuno, Madrid, 1986, 73-75 orr.

1839an foruak murriztu eta 1876an kendu aurretik bere buruaren jabe zen Euzkadi; eta honegatik guztiagatik berriz ere burujabe izateko eskubide guztiak dituena, beste edozein naziok baino gehiago, are estatu propioa sortzeko. Sabino Aranaren dotrina, eta haren jarraitzaile Engrazio Aranzadi *Kizkitza* eta gainerako ideologo jeltzaleena. Azken hau hil zenean, hala zioen Gorgoniok: «Ostendu da betiko ainbat urtean, Jel, gure elburu maiterantza lor eta nekez daroagun oñazezko bidean, gure gogoak adorez sendatu eta argitzen ebazan yakitun apala (...) Berrogeita bost urtean (a)elikatu ditu gure gogo abertzaleak ainbat idazkai sakon ta bere bizitza garbi ta apalagaz» (*Eguna* 1937-2-16).

Gaur egun ez gara probidentzialistak, ez esentzialistak, nahiz tradizioari begirunea eta lotsa ekarri edo aldarrikatu bederen, historizismoa ere ez dugu estimu handitan; alabaina, euskal herritarron borondatean oinarritu nazio irekia eraiki nahiko borrokan, jeltzaleek 1936ko gerra aurrean aurkitzen zituzten oztopoekin egiten dugu topo, ezker eta eskuin espainolzale zentralisten esentzialismo eta historizismoarekin. Nazionalismoaren lehen berrogei urtean ez zen eroso jeltzale zuzena eta benetakoa izatea.

HIZLARI APARTA

Gorgonio Renteriak bestek eraiki eta garatutako mami ideologikoa, garaian garaiko egoera politikoaren eskakizunetara egokitzen zuen, eta itxura guztien arabera hizlari-dohain aberatsez hornitzen. Esaterako, 1918ko azaroan, Antonio Maura Madrilgo Gobernuko buru zenean eta nazionalistek 1917an autonomi estatutua lortzeko abian jarri zuten kanpainak emaitzarik lortu ez eta ezerezean zetzanean, Bilboko Euskalduna pilotalekuan EBBko lehendakari gisa egindako hitzaldian gogor salatu zituen gobernari espainolak. Hark bere begiz ezagututako Kuba eta Filipinetako kolonietan Espainiak izandako jokabidea gogoan, meritu guztiak egin zituztela espainolek kolonietakoak etsaitasunez eurengandik banatzeko, eta ea ez ote zen beste horrenbeste gertatuko gurean, Madrilgo agintari gor eta itsuen jokabidea ikusita. Epaille espainolak ere gogor salatzen zituen, bidegabeenak berak baziren, zein justiziaren izenean zigortu behar zituzten nazionalistak, Thomas Wilson Estatu Batuetako presidenteari bidalitako zorion-telegrama zela medio. Biziki goratzen zuen, lehen mundu gerraren amaieran, Versaillesko bake-konferentzian delako

agintari amerikarrak aurkezturiko puntuetarik batean herrien askatasuna proposatu izana, nazionalitate-printzipioan oinarritua, nazio aske eta nazio jopuen arteko leize zuzen-kontrakoa suntsitzera zetorrelako. Hitzaldiari amaiera emateko, jeltzaletasunaren bakezaletasuna azpimarratzen zuen, baina horrekin batean aberriaren alde, beharrean aurkituz gero, bizia ematerainoko konpromisoa aldezten zuen, aberria eraileen aurrean galdu baino lehen, borrokan bizia emateko prestasuna. Beste horrenbeste adieraziko du II. Errepublika garaian, eta gerra hasitakoan.

1923ko apirilaren batean, lehen aberri egunean —hala dio *Euzkadi* aldizkariak— bestelako testuinguru politikoan, agertoki berean, hots, Bilboko Euskalduna pilotalekuan, beste puntu batzuk jorratu zituen. Nagusiki hiru: euzkotar guztion senidetasuna, Ipar nahiz Hegoko euzkotarren anaitasuna aberri bakarraren senide garen aldetik; guztion batasunaren beharra senide artean gogozko hesirik altxatu gabe, eta azkenik erlijio katolikoari eustearen garrantzia. Bigarren puntua jorratzerakoan —1921eko alderdiaren zatiketa, artean gairatu gabeko zauria zenean— euzkotarren izurri izandako

ahaide nagusien arteko gerrak aiputan
hartzen zituen, oinaztar eta ganboar,

beamondar eta agramondarrak;
zatiketarik zetozen ondoren txarrak
deitoratuz.

18

Baionan, 1936ko gerra zela medio, Euskaditik
ihes egindakoak aterpetzeko Euzko Laguntza
sortu zuten zenbait jeltxurak. Ezkerretik eskuinera:
Javier Gortazar jauna, Julian Estevez jauna,
Gorgonio Renteria jauna, Pello jauna, Luis
Arbeloa jauna, (...), Teresa Azkue anderea,
Fortunato Unzueta jauna, Isaak Lopez
Mendizabal jauna, (...)



Jeltxur gailenekin batean. Ezkerretik eskuinera:
Jesus Mari Leizaola, Gorgonio Renteria, Arriola,
Ramón Bikuña, Txomin Epalza (semea), Txomin
Epalza (aita), Ramirez Olano

IDAZLE

Oraindainokoak *Euzkadi* aldizkariko kroniketarik ateratakoak izan dira. Aurrerantzean, 1932tik aurrera *Euzkadi*, *Ekin*, eta *Eguna* aldizkarietan argitara zituen artikulua eta olerkietatik erakusgarri batzuk azaltzera joko dut. Egoera politiko aldakorra aztergai edo jorragai ez duenean, 1930ean Bergaran egindako batzarrean bateratutako alderdiak onartu dotrina-oinarriak garatzen ditu hondarrik




R.M. Azkuek zirikatutik, euskal olerkiak idazten hasi zen Filipinetan. Rizal poeta filipinarraren miresle zen.
R.M. Azkuek *Euskalzaile* aldizkarian argitaratzen zizkion

hondarrenean, baina estilo oso pertsonal, bereki, sutsu, eta zindoarekin⁸. Puntu batean behintzat lehentasun-zerrendan aldaketarik sumatzen da.

Nahiz soina loturik izan, gogoia aske izatearen garrantziaz:

Gaur Euzkadi gure Aberrijaren jaube dan España laterrijak, eta baita beste laterririk geyenak be, euren menpean dabezan enda ta errijari goguak ekandu ta aldatzea izan daroe lanik premiñaskoena (...) Alperrik eragozpen gustijak, alperrik espetxe, izkilu ta eriotzak, gogoia bizirik eta azke daben errija jagiko da eragospen gustien ganetik jarraitzeko izadi indar neurrigeak daragitson bidean. Sapotz edo kortxoa uran gain-gañean dakusgu berez, eta norbaitek uran barruan sartun nai badau errez lortu leike indar geyagogaz behintzat, baña indar ori nekatu, gaxotu edo ilten bada, unean bertan, jagiko da azalera berez dabezan izadi indarrak bultz eginda (...) (*Euzkadi* 1934-7-19)

19



⁸ Ikus, José Luis de la Granja, aip. lib. 49-53 orr.

Artikulu berean, enda bat mugatzeko hizkuntzak duen axola handia nabarmentzen du, arrazarena baino gorago jarriz honen garrantzia izaera ezartzerakoan eta ikur moduan, alderdiaren dotrinan arraza kontserbatzeak eta sendotzeak aurreragoko tokia zuenean:

Bananduak bizi gara euzkotarrok Frantze ta España ´ren menpean, baña nok ukatu ama baten umiak gareana. Bananduak England ta Ipar Amerikatarrak eta enda batekuak dira. Bananduak España ta Ego Amerikatarrak eta senide dira.

Izkuntza da ba endaen izakera ta ikurra, egi au ezin giñaike ukatu.

Txinan jayo dan euzko-semia euzkotarra da soñez, baña bere izkuntza ta oiturak txinatarrak badira ¿ete da aren gogua euzkotarra?


Asko dira gure artean be soñez euzkotar eta gogoz atzerritar diranak naita ez izan euraen erruz, baña Aberrija ezaututean aren izkuntza aren gogua eurakandu bear ebenak⁹.

Euskararen alde idazteko askotan hartu zuen luma. Esaterako, Bilboko hogei mila eta gehiago euskaldunen eskubideak aldezteko, euskaldun dendariei erostea gomendatuz. Hurrengo umeei euskararik irakasten ez zien ama jorratuko zuen, euskaldunon geuron hutsak salatuz. Nahiz gogaidetik ez zuen nahigabetu gura, ez zuen gupidarik bere alderdiaren euskararekiko zabarkeriak gaitzesteko:

Ostera Ondarroa´ko erri begikoan arraintzaleak izan eben batzarrean egon giñan lengo igandean eta ez genduan entzun batzar aretan euzkera gure eta gure arraintzalien izkuntzan ezertxu be.


Naita argi ta garbi entzun genduan arraintzale zindo baten deadarra, esanik, berak ezekiela erderarik (...) inortxok ezeutsan yaramonik egin (...) Batzar buruan, aizkide aberkideak genduzan eta ezdoguz mindu nai euraen gogoak; baña geuk be min bizija artu genduan eta intziri dagi, gogoak.

⁹ Gorgonio Renteria *Perularra* «Bakotxari berea» in *Euzkadi* 193?-5-21, 7301 alea.



1932tik 1936ra bitartean, hogeita bost bat artikulua argitaratu zituen jeltzaleen *Euzkadi* egunkarian. Gehienak hitz lauz, baina olerki banaka batzuk ere bai

Gorgonioren ohererako esan beharra dago euskaltzale fina izan genuela oso. Nahiz Elantxoben baino denbora gehiago Bilbon eman, euskara hutsean mintzo ohi ziren familian, aitaren aginduz. Mitin gutxiz gehienetan euskaraz egin zuen; eta euskarazko eskola handirik gabe euskaraz idatzi zituen olerkiak eta artikulua.




1932tik 1936ra bitartean, Bizkaiko *Ekin* aldizkari euskaltzale eta jaungoikozalean ere idatzi zituen hamabost bat artikulua prosaz. Gehienbat *Euskal erriko izparrak* sallean

Ondoko erakusgarriak egoera politiko jakinari lotuagoak dira. Gauza jakina denez, II. Errepublikaren garaian eskuineko alderdietatik gertuago egotetik ezkerreko alderdietatik hurbilago egotera igaro zen alderdi jeltzalea, haien zentralismo basaren eraginez inongo Araudi edo Estatuturik lortzerik ez zuela etsi-etsirik.

Eurak berberak dira, Sabin gure maxuba gizon Jaungoikoti gurena (...) ziñesge ta zorotzat aurkeztu ebenak erri jopu onen aurrean (...) Eurak atzerri legepean ostu ebezan ondasunak zaintzeko, arrotz gudariz inguratu gaitubenak. Eurok arrotz langile lander izurrija esarri dauskubenak, euzko seme langileak gosez zapaltzeko geure lurrean. (...) Oneik, ondasun ta diruak erotu ta orditurik, euraen menpian joputzat nai gaituben Izkariote dollorrok. Oneik uskurtza ikurrintzat jagita aren estalpean (e)alikatzen diran bildots narrudun otso amurrutubak (...) ¡Abertzale anayak! ¿Noiz arte iraungo dau gure eruapenak? ¿Noiz ordainduko dogu ainbeste deungekerijaen saneurrija?¹⁰.

Ez batzuekin ez besteekin, ez eskuinarekin ez ezkerrekin bat egin ezinik gogoz.

Ezker ta eskuma, baltz eta zuri, dan-danak doguz abertzaleon arerio deunga ta ekiñekoak (...) Edozein aberrian goralgarri ta aintzagarri bada aberrija maitatea, zerdala-ta izan legike ba emen gure aberrian, oben astun ta gorrotogarrija? (...) Badakigu deabruak kurutzeari dautsan gorrotua, eta ez ete gaitue oneik be aren antzera gorrotaten geure ikurriñean doguzan kurutze bijak dirala-ta? Ezkertarrak kurutze gustien arerioak diralako, eta ostera eskoitarrak kurutze orlegijari dautzen gorrotoak erasota, kurutze zurija zapaltzen lagaten dautzelako¹¹.



¹⁰ Gorgonio Renteria *Perularra* «Eurak dira» in *Euzkadi* 193?-3 edo 4-.

¹¹ Gorgonio Renteria *Perularra* «Gorrotopean» in *Euzkadi* 1936-6-12.

Olerkietan zirrargarrienetakoak gerrari dagozkionak ditu, nire iritzian. Guztira lau dira, nire esku artera iritsitakoak kontatzera behinik behin. Kronologian hirugarren argitaratuan, hain zuzen 1936an, gerra sutua zela, eta Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenean egindakoan, honako hitz-lerro neurtu bezain sentituak tolestatzen ditu:

Barriri nayatortzu Irakasle maitea
Zeure obi gañean itzalez makurtzen
Otoi ta liliakin gertu dodan txortea
Antsez txiroa baña maitasunez betea,
Oparo mun egiñik, apalik eskintzen.

Odolez orbanduak dira gaurko liliak
Ziñoparen odolez igurtzi takoak,
Eta otoyak dira gogoen intziriak
Euzko-ama gaxoen maitasun iturriak
Biotz zaurietatik erion dakoak. (...)

Alperrik, jazarpenak, alperrik espetxeak,
Alperrik eragozpen zigor ta esiak,
Alperrik urkamendi oñaze ta nekeak
Guzurran epaikari, dollor eta deungeak,
¡Danak zapaldu ditu, zure irrintzeak! (...)

Azkatasun eguzki arpegi gorrituak
Zabaldau argia basotik urtenda
¡Aupa! Dira euzkoak, argiak itzartuak,
Ara gure mendiak odolez margotuak,
¡Iragarri zeuskuna, osoan bete da! (...)

Zeure bizian ordez Aberrian bizia
Larrazabal etxian eskatu zenduan,
Bete da eskaria, bete da guraria,
Zure bizian ordez, bizi da Aberria,
Baita zure izena gustion gogoan¹².

¹² Gorgonio Renteria *Perularra*: «Sabin'ari» in *Euzkadi* 1936-11-29.



1918rako jadanik iragarria zuen, besterik ezinean, horretara behartuz gero, aberriaren alde bizia emateko prest zeudela jeltzaleak, benetako jeltzaleak, euren Irakaslea prest egon zen bezala. Ez du inongo mementutan zalantzarik, beldur-izpirik ageri. Bakezalea da, bakea du maite; baina aberriaren eraileen aurrean armak altxatzeko duda ñimiñorik gabe gertu. Gorago esan dugu bere bost seme joan zirela gerrara. Adierazi dugu, halaber, azken urteak saminak eta suminak izango zituela. Ea orritxook balio duten haren izena noiz edo noiz gogoan izan dezagun.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jule Renteria*
- *José Luis Villar argazkilaria*
- *Eusko Jaurlaritzako Publizitate Zerbitzua*
- *Karlos Diaz Urkiola*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a., 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1452-X (Obra osoa)
84-457-1455-4

L.G.: BI - 2.685-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística